

# GIZARTE PARTEHARTZEKO FORU ARAUAREN EZTABAIDA BATZAR

## NAGUSIETA

Markel Olano Arrese

Gipuzkoako Diputatu Nagusia

Segura, 2010-7-2

### 1. SARRERA

Batzar Nagusietako presidente anderea, Segurako alkatea, zinegotziak, batzarkideok, egunon eta mila esker gaurko osoko bilkura honetan parte hartzeagatik.

Batzordetik pasa ondoren gaur eztabaidatu eta onartuko da gizarte partehartzeko arau berria. Dakizuen bezala, arau honek, gipuzkoarron herri partaidatza bultzatuko du. Herritarrek eta herri arduradunek partaidetza bultzatzeko borondaterik ez badugu, arau guztiak ere alperrik dira; baina ni ziur nago gaurkoan mugarri garrantzitsu bat jartzen ari garela.

Badakit, dagoeneko, arauaren edukiak ondo ezagutzen dituzuela. Edozein kasutan, gaurkoan arauaren oinarrien nondik norakoa aurkezteaz aparte, herritarron partaidetzaren garrantziaz hitzegitea gustatuko litzaidake.

### 2. KULTURA POLITIKO BERRI BAT GIPUZKOAN

Legealdi haseran, Batzar Nagusi hauetan, kultura politiko berri baten premiaz hitzegin nuen.

Kultura politiko berri horrek hiru ardatz nagusi ditu: erakundeen arteko lidergo partekatua, erakunde publiko eta pribatuen arteko lankidetzak eta herritarron partaidetza. kultura politiko berria hitz soilen bidez ere laburbildu liteke: taldelana edota lankidetzak.

Zergatik egin dugu Kultura politiko berri baten aldeko apostua?

Elkar ulertu ezin eta zatiketek ez dutelako inora eramaten, bizi dugun mundu konplexuak berezko dituelako lankidetzan oinarrituko lidergo transformatzaileak eta, zalantzarik gabe, herritarren inplikaziorik gabe herrigintzarik ez dagoelako.

Gipuzkoan bizi izan dugun zatiketa politikoak jarrera aldaketa bat eskatzen du. Jarrera aldaketa bat, gure lurraldearen garapena moduzuzenean bultzatzeko. Baina, jarrera hori zatiketak gainditzeko premiatik haratago doa. Taldelana da gobernantza eredu berrien ardatza.

Gaur ez dute balio isolatutako ereduak; ez dute balio goitik behera eraikitako ereduak; gaur edozein proiektu sendotasunez aurrera ateratzeko taldelana ezinbestekoa da. Eta taldelanak baldintza batzuk eskatzen ditu.

Alde batetik, antolakuntza lauen egituraren baldintzak eta bestetik lankidetzak bultzatuko duen kultura eta balioak.

Gure herriko enpresei buruz hitzegiterakoan etikaz, berrikuntzaz, sorkuntzaz, ezagutzaren kudeaketaz hitzegiten dugu. Badakigu non dauden lehiakortasunaren faktore edota eragileak. Gauza bera gertatzen da herrigintzaz hitzegiterako garaian.

Gure herrigintza ereduak ere aldaketa sakonak eskatzen ditu, baina horietan aldaketarik nagusiena norbanakoan oinarritutako lidergoetatik, lidergo partekatura pasatzea da.

Lidergo partekatua erakundeetan, organizazioetan eta, lidergo partekatua, lurraldean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak kultura politiko berri honetan oinarrituta landu du bere ibilbide estrategiko guztia. Ez naiz ni hasiko emaitzak baloratzen. Hori herritarrei dagokie. Baina, Gipuzkoako Foru Aldundiak gainontzeko erakundeekin izan dituen herremanak emankorrak izan dira; eta GIPUZKOA AURRERA taldeak, gure lurraldean sortu duen lankidetzaren esparruak, lurraldeko erronka estrategikoei aurre egiteko modu berri bat sortu du. Eta, nere ustez, gaur onartzera goazen arau honek, herri arduradun eta herritarron arteko komunikazioan beste mugarri bat suposatu behar du.

Nire ustez, XXI. mendeko demokraziaren arazorik handienetako bat, herritarrek politikarekiko, erakunde publiko eta bizitza publikoarekiko duten atxikimendu falta da. Paradoxa bat da, baina komunikazioaren eta ezagutzaren gizartea inkomunikazioaren gizartea ere ba da.

Zergaitik ematen da atxikimendu falta hau?

Ziur nago politika egiteko ereduak zerikusia dutela, politikan nagusitzen den kulturak; ziur nago, era berean gure herriak bizi duen egoera politikoak ere zerikusia baduela; baina ziur nago batez ere, gizarte aurreratuetan eman den politikaren nolabaiteko pribatizazioak eta gizartearen beraren indibidualizazio prozesuak zerikusi handia izan dutela.

Arazo hau ez da konpontzen herritarrok herri politiketan parte hartzera gonbidatuz soilik, baizik eta herri arduradun eta herritarron arteko komunikazioa eta konfidantza landuz; honek, arauetatik haratago joatea eskatzen du.

Ezinbestekoa da jarrera aldatzea, Herri arduradun eta herritarron arteko harremana arautzen duten balioen aldaketa sakona bultzatzea. Gaur eztabaidatuko dugun araua pauso garrantzitsua da. Baina hori bezain garrantzitsua da komunikazio hori areagotzeko jarreran sakontzea.

Herritarron partaidetzara zabalik dauden partehartze prozesuek herrigintzaren balio demokratikoa indartu egiten dute; partaidetza, demokrazia berritzeko eta sakontzeko osagai bihurtzen da eta elkarbizitzako sistema bat eratzeke hausnarketaren nahiz eztabaidaren bidea hobetzeko aukera eskaintzen du.

Herritarren partaidetza prozesuak integrazio politiko handiagoa lortzeko aukera ere eskaintzen du; indartu eta osatu egiten du demokrazia hori; bizitza politikoa aberasten du, sistema demokratikoaren kalitatea areagotzen du eta herritarren gaitasun politikoa indartzen du.

Gizarte partehartzean oinarritutako kultura politikoak, politikariei edo erakundeei buruz herritarrek duten konfiantza eta inplikazio maila areagotzeko eragile garrantzitsua izan beharko litzateke.

Herritarren partaidetzak indar kualitatibo nahiz kuantitatiboa ematen dio eragile politikoaren eta herritarren arteko komunikazioari. Herritarren partaidetzak kalitatea eta eraginkortasuna sartzen ditu prozesuetan.

Gizarte partaidetzan oinarrituriko kultura politikoaren bidez, eraginkortasun maila handitu eta prozesuetan kualifikazio handiagoa txertatzea lortzen da.

Herritarren partaidetza, aukera paregabea da kultura politiko berri bat eraikitzeko, aniztasunetik adostasunak bilatuz.

Zalantzarik gabe, partehartzean oinarritutako kultura politiko hau desegokia ikusten dutenak izan badira. Badira ezer aldatzerik nahi ez dutenak, badira herriaren bizitza publikoa egitura instituzionaletan eta politika tradizionaletan egindako jarduerara mugatu behar dela uste dutenak. Baina herrigintza ez da soilik, ezin daiteke izan soilik, alderdi politikoaren eta erakundeetako arduradunen kontua; guztiona baizik.

Herritarrok gara herrigintzaren ardatza, eta horretarako gizartearen partehartzean oinarritutako kultura politiko berri batetan aldeko apostua egitea ezinbestekoa da: Nolakoa?

Lehenik eta behin,

Demokratikoa. Herrigintzan herritarren partaidetzak kultura politiko demokratikoan sakontzea dakar.

Herritarren partaidetza handiagoak adierazten du gizarte zibila indartu egiten dela; adierazten du baita ere, bizitza publikoa arnasberitu eta arintasun handiagok antolatzen dela; adierazten du sistema politikoa aberastu egiten dela etorkizuneko eginkizunen aurrean.

### Bigarrenik,

Etikoa. Herritarren partaidetzaren egituratze politikoa askatasunaren, berdintasunaren, justiziaren eta elkartasunaren printzipioen gainean egin behar da, eskubide indibidual eta kolektibo guztiak errespetatuz. Gure bizitza politikoa eta elkarbizitza sistema, oinarri etiko irmoetan finkatu behar dira.

### Hirugarrenik,

Proiektu ireki eta malgua. Gizarte partehartzea herritar guztientzat zabalik egon behar da inolako salbuespenik gabe. Lurralde honetan bizi diren pertsona guztiek dute zer esanik. Gizartearen partaidetza prozesua barneratzailea izan behar da, partaide izan nahi duten pertsona guztiei aukera emanaz.

### Laugarrenik,

Proiektu eraldatzaile eta eraginkorra. Herritarren partaidetza ezin daiteke prozesu estatiko bat izan; eraldatze proiektu bat da. Ezer aldatu gabe, denbora pasatzen uztera mugatzen bagara, ez dugu aurrera egingo eta ez dugu arazorik konponduko. Arazoak benetan konpontzeko, arriskuak hartu behar dira, eta eraldatze proiektu batean murgildu, baldintza berrien bila.

## 3. GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAN ORAINARTEAN BURUTURIKO IBILBIDEA HERRITARREN PARTAIDETZAREN ALORREAN

Zuen baimenarekin Foru Arau honetara nola iritsi garen adieraztea gustatuko litzaidake; Gipuzkoako Foru Aldundiaren bidea ez bait da orain hasten. Legealdi osoan zehar ekimen ezberdinak martxan jarri

ditugu eta ekimen guzti horiek eskeini diguten esperientziaz baliatu gara arau hau lantzerako orduan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru egitasmo zabal garatu ditu orainartean: "Partehartzea landuz", "Kudeatuz 2007-2011" eta "Ikasi Partehartzen".

Lehenengoa, Partehartzea Landuz. Gipuzkoako Foru Aldundiak programa bat antolatu du, legegaldi honetan politika publikoetan herritarren partaidetza sustatzeko.

Programa honen barnean jarduera hauek garatu dira:

- PARTEHARTZEA LANDUZ taldea eratu da. Talde hau, Gipuzkoako Foru Aldundiak arlo honetan egin dituen azterketa guztien zuzendaritza zientifikoaz arduratu da. Euskal Herriko Unibertsitateko, Deustuko Unibertsitateko eta Arrasateko Unibertsitateko hainbat irakaslek parte hartu dute.

Talde honen barnean, Herritarren partaidetzari buruzko esperientzia pilotu ezberdinak landu dira; adibidez, Azkoitia-Urretxu errepidea eraberritzeko proiektua.

Bigarren egitasmoa: KUDEATUZ 2007-2011. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDEL-ek lankidetzara programa bat bultzatu dute gure herrialdeko gobernantza sistema hobetzeko. Udalerrietan azterketak, gizarte partehartzeko programak eta herri politikak ebaluatzeko egitasmoak bultzatu dira. Dagoeneko 30 herritan partaidetzako egitasmoak martxan jarri dira.

Hirugarren egitasmoa: IKASI PARTEHARTZEN. Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Arantzazu Baketik Fundazioak, lankidetzara hitzarmen

bat izenpetu dute, herritarren partaidetzaren alorrean prestakuntza plan bat antolatzeko, politika publikoei dagozkien gaietan herritarren partaidetza sustatzeko helburuaz. Orainartean aurrera eramán diren 2 edizioetan 500 lagun baino gehiagok parte hartu dute antolaturiko formazio prozesuetan.

Ekintza guzti hauek Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat oso esperientzia baliagarriak izan dira foru arau proiektu honen aurrekari moduan. Nahiago izan dugu esperientzietatik araura iritsi eta ez alderantziz.

\* \* \*

Las Juntas de Gipuzkoa vamos a debatir y aprobar una Nueva Norma Foral de Participación Ciudadana.

Esta norma de participación ciudadana constituye la máxima expresión de una nueva cultura política impulsada por la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Frente a la fragmentación política nosotros apostamos por el liderazgo compartido; frente a los que piensan que el desarrollo del territorio es una cuestión exclusiva de las instituciones públicas, nosotros apostamos por una colaboración público-privada; y frente a los que piensan que la política es una cuestión de unos pocos, nosotros apostamos por la participación ciudadana. Gipuzkoa es un reto compartido.

La Nueva Cultura Política significa compartir; significa trabajar en equipo; significa asumir un compromiso colectivo.

La Nueva Norma Foral de Participación Ciudadana tiene como objetivo mejorar la comunicación entre los responsables públicos y la

ciudadanía; queremos acercarnos a la gente, salir a la calle, escuchar y aprender. Con todas nuestras limitaciones y contradicciones queremos abrirnos a la sociedad: con honestidad y transparencia.

Creo, sinceramente, que esta Norma Foral de Participación Ciudadana va a servir para profundizar en la democracia; va a servir para dar mayor legitimidad a nuestras instituciones representativas y va a servir para fortalecer la relación con los ciudadanos. Esta norma abre un nuevo tiempo político en el territorio desde el punto de vista de las políticas públicas.

#### 4. NORMA FORAL DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA EN GIPUZKOA

La nueva norma foral tiene como objetivo incorporar la cultura de la participación ciudadana a la agenda del gobierno foral. Para ello es necesario establecer una norma que regule esta participación y trazar las líneas de un Plan de Acción que actúe como catalizador de las iniciativas participativas.

El procedimiento de elaboración de la Norma ha sido el siguiente:

- En el debate de política General del 17 de septiembre de 2.009 septiembre me comprometí a presentar antes de verano de 2010 un proyecto de norma foral sobre participación ciudadana.
- El 14 de octubre se presentó el documento "*Comprender, Practicar e Impulsar la Participación Ciudadana*" en el que se resumen las ideas básicas que guían la acción del Gobierno Foral en materia de participación ciudadana institucional.

- Tras reunirnos con todos los portavoces en Juntas Generales, se presentó el 11 de noviembre el procedimiento para la elaboración de este proyecto de norma que hoy presentamos. En este proceso han participado, partidos políticos, asociaciones, expertos, técnicos Forales, EUEDEL, Ciudadanos formados en el proceso "Ikasi Partehartzen " etc.

Me gustaría agradecer muy especialmente, en primer lugar, a la Diputada de presidencia Edurne Egaña y a su equipo por haber dirigido todo el proceso de forma ejemplar y, en segundo lugar, a los expertos que han dirigido el proceso de redacción de la norma: a Alfonso Unceta Satrustegi (Decano de la Facultad de Sociología de la EHU-UPV) y a Alberto Lopez Basaguren (Catedrático de Derecho Constitucional de la EHU-UPV).

En relación al proceso que esta norma ha vivido en la tramitación en estas Juntas Generales, me gustaría destacar la contribución realizada por los diversos grupos junteros. Todas estas aportaciones han sido absolutamente fundamentales para mejorar cualitativamente esta norma; quiero hacer una mención especial a las múltiples modificaciones realizadas para que esta norma contribuya a la promoción de la igualdad de género.

Los objetivos de la norma son:

1. Promover e impulsar la participación ciudadana de mujeres y hombres en los asuntos públicos en el territorio histórico de Gipuzkoa, instaurando la participación en la Administración Foral en sus distintos niveles de gestión.

2. Desarrollar los derechos democráticos de la ciudadanía y de los grupos en que se organiza, por medio de los procesos, prácticas e

instrumentos de democracia participativa que complementan y perfeccionan los derechos y las técnicas de la democracia representativa.

3. Fomentar la consolidación de una cultura de participación ciudadana que transversalice los principios que rigen la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres.

4. Propiciar la implicación igualitaria de los hombres y las mujeres que conforman la ciudadanía en la gestión pública, para lograr una ciudadanía activa interesada por lo público.

5. Incrementar la transparencia en la acción de gobierno y articular la vinculación entre la acción de gobierno y la sociedad guipuzcoana.

6. Impulsar la apertura de los poderes públicos a las necesidades y las dinámicas sociales.

7. Facilitar una mayor eficacia de la acción política y administrativa a través de la colaboración social.

8. Garantizar mayores niveles de solidaridad y de integración social contribuyendo de forma específica a la igualdad de género y a la defensa de los intereses de los más desfavorecidos o vulnerables y de los intereses con menor capacidad representativa.

9. Fomentar el tejido asociativo y difundir la cultura y los hábitos participativos.

10. Colaborar con los ayuntamientos en el fomento de la participación ciudadana y en la realización de procesos de participación en su actividad de gobierno y administración.

11. Favorecer la mayor eficacia de la acción política y administrativa a través de la colaboración social, de forma que la elaboración de las políticas públicas y la valoración de los resultados alcanzados se beneficien de la riqueza que representan los conocimientos y experiencias de la ciudadanía, sin invisibilizar las aportaciones de las mujeres.

A continuación procederá a exponer las principales características de la norma:

En el Titulo I se establece que:

Los resultados que se deriven de los procesos participativos podrán ser asumidos por la Diputación, la cual en caso contrario está obligada a motivar las razones de su decisión.

## Titulo II.

Se regula el derecho a participar, a recibir información sobre los procedimientos, el derecho de petición y el derecho de iniciativa en la gestión de los asuntos públicos que son competencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa, mediante la realización de procesos participativos.

Las personas residentes en el territorio histórico de Gipuzkoa, directamente o a través de las entidades ciudadanas, tienen derecho a participar.

Se consideran entidades ciudadanas todas aquellas asociaciones que estén inscritas en el Registro Foral de participación ciudadana. Sin embargo, la no inscripción no impedirá el derecho a la participación.

### Titulo III.

Se enumeran los instrumentos de participación ciudadana. Los procesos de participación ciudadana se podrán realizar en el seno de procedimientos relativos a las políticas públicas de la Diputación Foral de Gipuzkoa. Los procesos de participación ciudadana se desarrollarán (salvo casos excepcionales) en la fase inicial del procedimiento de las políticas públicas.

Desde el punto de vista de los protocolos de participación, la dirección foral para la participación ciudadana aprobará un protocolo para cada procedimiento en el que se detallarán los objetivos, las cuestiones que serán objeto de deliberación y todas las condiciones que regula el procedimiento en cada caso.

La Diputación Foral tiene capacidad de iniciativa para establecer procesos de participación ciudadana; también las Juntas Generales podrán acordar la realización por parte de la Diputación Foral de procesos de participación ciudadana.

Las Entidades Ciudadanas inscritas en el registro foral de Entidades Ciudadanas para la participación gozarán del derecho de iniciativa para la realización de un proceso de participación ciudadana.

Tienen también derecho de iniciativa para la realización de procesos de participación ciudadana las personas residentes en Gipuzkoa que se consideren afectadas por la decisión o política de la Diputación

Foral de Gipuzkoa y que representen, al menos al 2% de la población del territorio, comarca o municipio.

También podrán ejercer la iniciativa para la realización de procesos de deliberación participativa los entes locales afectados por la política o decisión a adoptar por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

La comisión Foral de Participación Ciudadana determinará el momento en el que se procede a la apertura de un proceso de participación ciudadana. La apertura de un proceso de participación en relación con una determinada política pública suspenderá cualquier actuación que condicione la decisión final a adoptar.

Las consultas populares constituirán una forma de participación ciudadana en Gipuzkoa. En el ámbito de las competencias forales, las consultas populares se podrán configurar en cualquier modalidad salvo la modalidad del referéndum.

#### Titulo IV.

Se detalla el papel predominante de las entidades ciudadanas y su reconocimiento con la apuesta en marcha del registro de Asociaciones del Territorio de Gipuzkoa.

#### Titulo V.

Se establece la obligación de presentar el Programa Participativo como instrumento donde se recoja el conjunto de propuestas en materia de participación ciudadana de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Se establece la constitución del Consejo Social del Territorio, como órgano consultivo en materia de participación ciudadana.

Se establece la puesta en marcha de una Comisión Foral, donde estarán representados todos los departamentos de la Diputación foral.

Se establece una dirección Foral de participación ciudadana, dentro del gabinete del Diputado General, para la realización de los procesos de participación ciudadana.

#### Titulo VI.

Se regula el fomento de las entidades locales a través de convenios, instrumentos específicos y asistencia técnica necesaria para la realización de procesos participativos.

#### Titulo VII.

Se establece la elaboración de informes y memorias para la evaluación de los procesos.

\* \* \*

Las Juntas Generales podrán realizar una evaluación global de la aplicación de los instrumentos y procedimientos puestos en marcha.

A lo largo de este verano, una vez que se apruebe en Juntas Generales, pondremos en marcha los diferentes órganos para la gestión del programa de participación foral y se abrirá el nuevo Registro Foral de Entidades Ciudadanas.

Una vez aprobada la norma presentaré el programa participativo que contiene el conjunto de propuestas en materia de participación ciudadana que enmarca la actividad de los órganos forales para desarrollar hasta el final de la legislatura.

## AZKEN BALORAZIOA

Gizarte partaidetzak alde ugari ditu. Baina helburu bakarra: demokrazian sakondu eta elkarbizitza hobetu.

Guk bultzatu nahi dugun herritarren partaidetza kultura politiko demokratikoaren muin zibikoa da. Guk bultzatu nahi dugun gizarte partaidetzak herri politikak eraginkorrago egin nahi ditu.

Guk bultzatu nahi dugun gizarte partehartzeak etika eta gizarte arduraren balioa ditu oinarrian. Gizalegerik gabe, gizarte ardurarik gabe, arauak errespetatu gabe, ez dago gizarte partaidetzarik.

Guk bultzatu nahi dugun gizarte partehartzea herritar guztientzat zabalik egongo da, inolako salbuespenik gabe. Lurrealde honetan bizi diren pertsona guztiek dute zer esana, beraz.

Gipuzkoa guztion ardura da.

Mila esker.